**OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.01.27**

Tolosako Udaletxean, 2015eko urtarrilaren 27an, arratsaldeko 19:30tan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Ibai Iriarte San Vicente, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 19:30 horas del día 27 de enero de 2015, se reúne el Ayuntamiento Pleno, en Sesión Ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia del alcalde, Ibai Iriarte San Vicente, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:

Ibai Iriarte San Vicente

Bertaratutako zinegotziak:

Lore Agirre Zipitria
Hasier De los Rios Soraluce
Igor Ezenarro Balda
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Jon Koldobika Arsuaga Artola
Mikel Arreseigor Astibia
Ainhoa Etxeberria Aranburu
Olatz Peon Ormazabal

Jon Aldazabal Etxeberria
Miren Ezkiaga Etxezarreta
Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Belloso
Nuria Carbonell Miranda
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Jose Ignacio Asensio Bazterra

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Behin behineko Kontuhartzailetza:

Paulino Alonso Eraso.

1.- Ondorengo akta onartzea:

2014ko abenduaren 30eko Osoko Bilkurakoa.

1.-Aprobación de la siguiente acta:

Sesión Ordinaria de 30 de diciembre de 2014.

2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

2014ko abenduaren 1etik 31ra

2.- Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

Del 1 al 31 diciembre de 2014

**OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.01.27**

(2014/1640-2014/1768)

3.- Zinegotzi baten kargua hartzea.

4,- Behin betiko onespena: Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren aldaketa puntuala: "15.4 Inmakulada ikastetxea" azpiesparrua.

5.- Zabor bilketari buruz mozioa Tolosako Alderdi Sozialistak eta EAJ/PNVk aurkeztua.

6,- Adierazpen instituzionala Mendebaldeko Saharatar bati asilo politikoa emateko eskatuz.

7,-Gipuzkoako Batzar Nagusiari Anoeta-Tolosa bidegorriaren proiektua onartzeko eskaera egitea.

8.- Galde-erreguak

(2014/1640 al 2014/1768)

3.- Toma de posesión del cargo de concejala.

4,- Aprobación definitiva de la modificación puntual del Plan General de Ordenación urbana: Subámbito "15.4 Inmakulada ikastetxea".

5.- Moción presentada por el Partido Socialista de Tolosa y EAJ/PNV con respecto a la recogida de basuras.

6.- Moción institucional para solicitar la concesión de asilo político a un ciudadano del Sahara Occidental.

7.- Solicitar la aprobación del proyecto de bidegorri Anoeta-Tolosa a Juntas Generales de Gipuzkoa.

8.- Ruegos y preguntas.

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

A continuación se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

**1.- Ondorengo akta onartzea:**

2014ko abenduaren 30eko Osoko Bilkurakoa.

**1.-Aprobación de la siguiente acta:**

2014ko abenduaren 30eko Osoko Bilkurakoa.

Ondoren, izenburuan aipatutako akta, aho batez, **onartu** da.

**OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.01.27**

**2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:**

2014ko abenduaren 1etik 31ra (2014/1640-2014/1768)

**2.-Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:**

Del 1 al 31 diciembre de 2014 (2014/1640 al 2014/1768)

Alkatetzak, 2014ko abenduaren 1etik 31ra bitartean (2014/1640-2014/1768) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Udalbazkideak jakinaren gainean geratu dira.

**3.- Zinegotzi baten kargua hartzea.**

**3.- Toma de posesión del cargo de concejala.**

Junta Elektoraletik ez da zinegotzi berriaren kredentziala iritsi. Beraz, hurrengo plenorako utzi da gaia.

**4,- Behin betiko onespena: Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren aldaketa puntuala: "15.4 Inmakulada ikastetxea" azpiesparrua.**

Tolosako Udalbatzak, 2014ko martxoaren 26an egindako osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion honako proiektua honi: Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren Aldaketa Puntuala, "15.4 Inmakulada Ikastetxea" azpiesparruari dagokiona.

Dokumentua hasierako izaeraz onartu ondoren jendaurrean egon da hilabetez. Horretarako ondorengo argitarapenak egin dira: Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (2014-04-08), Berria (2014-04-08) , El Diario Vasco (2014-04-08), Gara (2014-04-08) eta Tolosaldeko Ataria (2014-04-08).

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

**4,-Aprobación definitiva de la modificación puntual del Plan General de Ordenación urbana: Subámbito "15.4 Inmakulada ikastetxea".**

El Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, en sesion celebrada el día 26 de marzo de 2014, acordó aprobar inicialmente el Proyecto de Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa referido al subámbito "15.4 Inmakulada Ikastetxea".

Tras su aprobación inicial, el documento fue expuesto al público por el plazo de un mes, mediante la publicación del anuncio correspondiente en el B.O. De Gipuzkoa (08-04-2014), Berria (08-04-2014), El Diario Vasco (08-04-2014), Gara (08-04-2014) y Tolosaldeko Ataria (08-04-2014).

Durante dicho plazo no se presentó

alegación alguna.

Tolosako Udal Planeamenduko Aholku Batzordeak aldeko iritzia eman dio proiektuari 2014ko urriaren 10ean egindako bilkuran.

El Consejo Asesor de Planeamiento de Tolosa informó favorablemente el Proyecto en sesión celebrada el 10 de octubre de 2014.

Tolosako Udalbatzak, 2014ko urriaren 28an, aho batez erabaki zuen:

El Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, con fecha 28 de octubre de 2014, acordó, por unanimidad:

**1.-**Behin-behineko izaeraz onartzea Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aldaketa Puntuala, “15.4 Inmakulada Ikastetxea” azpiesparruari dagokiona, ondoren zehazten diren baldintzapean:

**1.-**Aprobar, provisionalmente, el Proyecto de Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa, referido al subámbito “15.4 Inmakulada Ikastetxea”, con el siguiente condicionado:

1.1.-Eraikigarritasun haztatua gehitzeak eragindako zuzkidura-karga kendu beharko da. Hori obretako udal lizentzia ematen denean gauzatuko da.

**1.1.-**Deberá procederse al levantamiento de la carga dotacional derivada del incremento de edificabilidad ponderada, que se materializará al concederse la oportuna licencia municipal de obras.

**1.2.-**Zuhaitz bat landatu behar da eraikitako 100 m²-ko gehikuntza bakoitzeko.
Azpiesparruan betetzea ezinezkoa bada, beste esparru batean gauzatu beharko da.

**1.2.-**Deberá plantarse un árbol por cada 100 m² (t) de incremento de superficie.
En caso de no poder cumplirse en el subámbito, deberá materializarse en otro ámbito.

**2.-**Proiektua Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari igortzea, dagokion txostena egin dezan.

**2.-**Remitir el Proyecto a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en solicitud de que emita el informe correspondiente.

2014ko azaroaren 3an, aurkeztu zen espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen aurrean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 91 artikuluak aurreikusitako txostena eskatuz.

El expediente fue presentado ante la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco con fecha 3 de noviembre de 2014, en solicitud del informe preceptivo previsto en el art. 91 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo.

Gipuzkoako Hirigintza Plangintzaren Atalak abenduaren 17ko 8/2014 bilkuran erabaki zuen espedienteari inongo eragozpenik ez

En la sesión 8/2014, celebrada el día 17 de diciembre, la Sección de Planeamiento Urbanístico de Gipuzkoa acordó no poner

jartzea ondoren aipatzen den araudiari jarraiki lotesleak diren alderdien gainean: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako maiatzaren 31ko 4/1990 Legea eta Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanen gaineko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legea.

objección alguna al expediente, en lo que respecta al cumplimiento de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, de la Ley 4/1990 de Ordenación del Territorio del País Vasco y a la Ley 5/1993 de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los órganos Forales de sus Territorios Históricos.

Guzti honen aurrean, eta ikusirik Hirigintza Batzordeak jaulkitako aldeko diktamena, Udalbatzak,aho batez eta Udalbazkideen gehiengo absolutoaz,

Ante todo lo expuesto, visto el dictamen favorable de la Comisión de Urbanismo, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, que supone la mayoria absoluta legal de los miembros que componen la Corporación,

**ERABAKI DU:**

**ACUERDA:**

**Lehena.-**Behin-betiko izaeraz onartzea Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aldaketa Puntuala, “15.4 Inmakulada Ikastetxea” azpiesparruari dagokiona, ondoren zehazten diren baldintzapean:

**1.1.-**Eraikigarritasun haztatua gehitzeak eragindako zuzkidura-karga kendu beharko da. Hori obretako udal lizentzia ematen denean gauzatuko da.

**1.2.-**Zuhaitz bat landatu behar da eraikitako 100 m²-ko gehikuntza bakoitzeko.
Azpiesparruan betetzea ezinezkoa bada, beste esparru batean gauzatu beharko da.

**Primero.-**Aprobar definitivamente el Proyecto de Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa, referido al subámbito “15.4 Inmakulada Ikastetxea”, con el siguiente condicionado:

**1.1.-**Deberá procederse al levantamiento de la carga dotacional derivada del incremento de edificabilidad ponderada, que se materializará al concederse la oportuna licencia municipal de obras.

**1.2.-**Deberá plantarse un árbol por cada 100 m² (t) de incremento de superficie.
En caso de no poder cumplirse en el subámbito, deberá materializarse en otro ámbito.

**Bigarrena.-**Behin betiko erabakia jakinaraztea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolaketako Batzordeari.

**Segundo.-**Comunicar el acuerdo de aprobación definitiva a la Comisión de Ordenación del Territorio del Pais Vasco.

**Hirugarrena.-**Plana bidaltzea Gipuzkoako

**Tercero.-**Remitir el Plan a la Diputación

Diputaziora, Hirigintza Planeamenduaren Administrazio erregistroan jasotzeko.

**Laugarrena.-**Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onespen erabaki osoa eta Planaren hirigintza arauak, Plana Hirigintza Planeamenduko Administrazio Erregistroan gorde izanaren aipamenarekin batera.

**Bosgarrena.-**Behin betiko erabakia argitara ematea eguneroko prensan.

**Seigarrena.-**Dokumentua eta espediente administratiboa bidaltzea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolaketa Batzordera.

Foral de Gipuzkoa para su depòsito en el Registro Administrativo de Planeamiento Urbanístico

**Cuarto.-**Publicar en el B.O. de Gipuzkoa el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva y las normas urbanísticas del Plan, con indicación de haberse producido el depósito del Plan General en el Registro Administrativo de Planeamiento Urbanístico.

**Quinto.-**Publicar el acuerdo de aprobación definitiva en la prensa diaria.

**Sexto.-**Remitir el documento y el expediente administrativo correspondiente a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

**5.- Zabor bilketari buruz mozioa Tolosako Alderdi Sozialistak eta EAJ/PNVk aurkeztua.**

**5.-Moción presentada por el Partido Socialista de Tolosa y EAJ/PNV con respecto a la recogida de basuras.**

Idazkariak mozio hau irakurri du:

“*Tolosan zabor bilketa eredu ezberdinak aztertu diren arren, udal gobernuak erabaki eta ezarri duen ereduak ez du Tolosako herriari egokitutako azterketa ez tekniko ez ekonomikorik izan ezarpenaren aurretik. Honen ondorioz eta aurreikuspenik egon ez delako, hainbat zabor bilketa puntuetan arazoak sortu dira. Arazo hauek gainera areagotu egiten dira data konkretuetan, herritarrak eguberrietako garaiean ikusi izan dugunez. Jakinik gainera Iñauteriak gertu ditugula eta eguneroko bilketan ere gero eta zabor poltsa gehiago egoten direla edukiontzietatik kanpo.*

*Gainera, guzti honek kaleetako garbitasunean eragina du.*

*Azkenik, Mankomunitatean Tolosako udalak duen ordezkariak Tolosaldeko Mankomunitatearen inguruko datuak eskatu eta behin eta berriz entzungor egin du, nahiz eta kudeaketa publikoan gardentasun eza hori onartezina izan.*

*ESKATZEN DUGU*

*1.- Organikoa eta errefuxaren kontenedoreak beste frakzioen kontenedoreen adinako tamaina izan dezatela bilketa maiztasunaren murrizketarik gabe.*

*2.- Kaleetako garbitasunari erreparatzea, gehien bat kontenedoreen inguruetan.*

*3.- Tolosaldeko Mankomunitateko aurrekontuaren likidazioak eta legealdian Mankomunitateko aurrekontuaren gerakinak izandako gastu xehetuaren kontu eman dezatela, hala nola Mankomunitateak egindako kontratazioen berri.”*

Bozketara jarrita, ez da onartu, nahiz eta izan EAJ/PNV alderdiaren zinegotzien aldeko botoa (7) eta PSEE-PSOE alderdiaren zinegotziarena (1), aurkako bota dutelako Bildu (7) alderdiaren eta Aralarren (1) zinegotziek.

Parte hartzeak:

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar: “*Hauteskundeak datoztela eta, oposizioak hainbat gai erabilitzeko zilegitasuna dauka. Baita ere dauzkan arma eta baliabide guztiak erabiltzeko gobernuaren jarduerak kritikatzeko eta, are gehiago, zaborraren gaia. Edozein sistema berri martxan jartzen denean, hasieran beti egoten dira disfuntzioak, konpondu beharreko kontuak; arazoak sortzen dira eta tarte bat egoten da, egokitasunez, funtzionamentuan jarri arte. Udal gobernua jakitun da arazoak daudela eta detektatzen ari gara, baita neurriak jartzen ere hori bideratzeko. Errespetu osoz esango dut, baina nik uste oposizioak egin duela jauzi hirukoitza kiribilarekin, arrazoibideetatik egiten du proposamenetara salto. Zioak eta proposamenak loturarik ez daukate nere ikuspuntutik. Sistema osoa aldatzea eskatzen du. Aipatzen da eduki hontziak handitzea eta aldatzea. Aurrekontuak aztertutakoan zabor bilketaren kostuaz kejatu zineten eta kontrako botoa eman zenioten. Orain proposatzen duzue beste gastu bat egitea; nik uste kontraesana dala. Iruditzen zait gaia ez dela hemen tratatzekoa, batzordean edo zaborren mahaian tratatzekoa baizik. Gaia honera ekartzea joku politikoa da.”*

... Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSEE-PSOE: “*Mozio honetan egiten duguna da bi gai salatu: lehenengoa, ezarritako zaborbilketa sistema ez dela Tolosak behar zuena eta, bigarrena, Mankomunitatearen gardentasun eta informazio falta salatzea, bereziki aurrekontuen likidazioari eta kontratazioari buruzko informazio falta. Kudeaketa publikoaren ikuspuntutik ezinezkoa da. Lehenbailehen gai hauei buruz informazioa ematea eskatzen dugu. Joku politikoa dela? Noski. Baina Tolosarren arazoaz ari gara.”*

... Olatz Peon Ormazabal, EAJ/PNV: “*Saiatuko naiz salto hirukoitz kiribilla argitzen. Guri zilegitasuna onartzeagatik eskerrak ematen dizkizut, baina guri zilegitasuna herritarrek eman digute. Tolosako zabor bilketa desberdinak aztertu ziren eta erabakia hartu zen gaur egun daukagun sistema ezartzeko. Bilketa sistema hau, Tolosan ezartzeko garaian, teknikoki, ez zen azterketarik egin. Horrek esan nahi du Tolosako tokiko ezaugarriak ez zirela kontuan hartu sistema ezartzeko garaian, eta horrek ekarri ditu ondorio batzuk; gero eta boltsa gehiago dago lurrean. Egia da data berezietan bilketa bereziak antolatu behar direla: hori aurreikusi behar du Udalak. Organiko eta errefuxaren inguruan zergatik agertzen dira poltsak lurrean? Itxuran sailkatuak dauden poltsak. Batzutan, gainezka egiten dutelako, beste batzutan txipak ez duelako ondo funtzionatzen. Guk mozio honekin eskatzen duguna da gure herrian hondakin*

*erreealitatera zuzendutako sistema egokitzea eta horretarako egiten ditugun proposamenak hauek dira: eduki hontziak egokitzea sortzen dugun hondakin kopuruarentzat eta bilketa maiztasunak zabaltzea. Nik uste dut herritarrek eskertuko luketeela gai honen inguruan akordio bat lortuko bagenu. Baina, horretarako beharrezkoa da informazio guztia mahai gainean jartzea eta erabateko gardentasuna edukitzea. Horregatik eskatzen ditugu likidazioak eta gerakinen informazio xehetua. Baina informazio ez zaigu iristen. Mankomunitateak prentsaurrekoan datu bat eman du: Tolosan birzkiklapen tasa %76,5 dela. Zuzendu beharko litzateke tasa hori sailkapen tasa dela, ez birziklapen tasa. Tasa horrek zer ematen du? Aukera herritarra zoriontzeko oso ondo sailkatzen ari delako. Beraz, guk mozio honen bitartez agertu nahi duguna da Udal honek baliabide asko jartzen ari dela, baina bilketa zerbitzua, nahiz eta frakzio bat gehiago jaso, lehen baino okerragoa dela."*

... Lore Agirre Zipitria, Bildu: "*Banan banan erantzungo ditut: mankomunitateko datuen inguruko kezka adierazi duzue eta, bai batzordeetan, bai beste foroetan, adierazi zaizue Mankomunitateko batzarra egin eta hurrengo egunean bidali zaizuela akta eta informazio osoa. Likidazioa eta gerakinen informazioa ez daukazue ez dagoelako egina. Otsailaren hasieran egingo da batzarra eta biaramunean bidaliko zaizue informazioa. Kale garbiketari buruz esan, gaia landu beharrekoa dela egunerokotasunez, eta bide horretan jarraitu beharko da. Bilketari dagokionean, tamainari, maiztasunari...oinarria da ahalik eta gutxien sortzea eta sortzen dena ahal den sailkatuena jasotzea gero birziklatzeko. Sistema honen arrakasta dator errefuxa mugatzetik eta hori lortu da eduki hontziak tamaina zehatza eta bilketarako maiztasun zehatza dutelako. Hiru hilabete hauetan ikusi dugu etxean errefuxa gutxiago nola sortzen den eta datuak ere hori erakusten dute, hondakinak ondo sailkatuta ia ez dela errefuxik sortzen. Ez gara ari jasangarrintasun edo ingurumen arrazoiez bakarrik, arrazoi ekonomikoz ere. Errefuxaren tratamendua 144 euro tonako da eta organikoarena 72 euro tonako. Beraz, sistema modu honetan antolatu da, tamaina honekin eta maiztasun honekin, jasangarriagoa delako, bai ingurumen ikuspuntutik, bai ekonomikoaren ikuspuntutik ere. Datuak onak dira; Tolosan iritsi gara %76,5era birziklatzera. Hori lortu da sistema modu honetan daukagulako. Gonbidatzen zaituztet hondakin mahaira, han tratatuko dugulako sistema nola optimizatu. Ateak irekita dauzkazue."*

... Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSEE-PSOE: "*Bilketaren maiztasuna ez da arazo puntuala, aste bukaeratan ere gertatzen da. Eduki hontzi handigoekin eta murrizketarik gabeko sistema batekin oraindik hobea izango liltzateke. Errefuxa gutxiago dagoela esan duzu? Ez dakit zenbat desagertzen den, baina seguraski zerbait bai. Nolabait ikertu beharreko gauza da."*

... Olatz Peon Ormazabal, EAJ/PNV: "L*ehenago esandakoa berresten dut. Argitzearren, guk eskatzen dugun informazioa ez da azkeneko urte honetako likidazio, aurrekoa baizik, baita kontratazioak ere."*

**OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.01.27**

Lore Agirre Zipitriak, Bilduko zinegotziak, esaten dio 2013koa ez dagoela egina eta onartutako informazio guztia badaukatela. Teknikariak berak bidaltzen duela. Hala ere, berriro ere bidaliko zaizkiela.

... Olatz Peon Ormazabal, EAJ/PNV: "*Bestalde, tamainarena; eduki hontziak gainezka badaude, handiagoak jarri beharko dira. Zentzurik ez du sailkatutako hondakina buelta guztian lurrean ikusteak. Bestalde, hondakin mahaiak ez du balio izan zailtasunak mahai gainean jartzeko. Gu altxa ginan mahai horretatik iruditu zitzaigulako adarra jotzen ari zinatela. Aktak jasotzen ditugu eta ez dute inoiz kalean dauden arazoetaz hitz egiten.*"

... Alkatea: "*Etxe bakoitzean gero eta geihago birziklatzen eta sailkatzen bada, orduan, tratamendu kosteak txikiagoak izango dira eta justifikazio gutxiago izango luke errausgailuak. Tolosaldeko Mankomunitateak lortu du Mankomunitate askok amesten duten gauza bat, 2020erako ziren etxeko lanak 2015ean egitea. Gogora ekarri nahi dut Trianguloa nola zegoen kontenedore haundiak zeudenan, baita musika eskola, Lopez Mendizabal, Oria kalea... Askoz okerrago zeuden, eta sailkatu gabe. Eduki hontzi tamainak saihesten du kontaminazioa. Sistema malgua eta berritzailea daukagu eta egokitu egin behar dugu. Ez da kamioi bat bera ere atzera bota, denak onartu dira. Ulertzen dut kontra egitea, hau izan delako legealdi honetako batalla politikoa. Jarri den sistema teknikarien txosten eta ikerketaren ondorioz jarri da. Errefuxa jaistearekin kosteak murriztea lortu da eta, aldiz, hondakinak zabor baino lehengai ikustea eta salgarri bilakatzea. Egokitzen jarraitu beharko dugu, baina datuak kontundenteak dira eta zoriontzekoak, bai herritarrak, bai eskualdea, bai hiru urte t'erdi hauetan eman den brinkoa eta horren ardura izan duten guztiak.*"

**6,-Adierazpen instituzionala Mendebaldeko Saharatar bati asilo politikoa emateko eskatuz.**

Hassanna Aalia 1988an jaio zen Aaiun hirian, Mendebaldeko Saharan.

2010ean aktiboki parte hartu zuen Gdeim Izik-eko bake-protestako kanpamentuan. Gertaera horrengatik epaitu egin zuten eta lau hilabeteko espetxealdia (burutu gabe) ezarri zioten.

2011ko urrian aukera izan zuen Euskal Herrira bidaiatzeko, ikasketa-beka batekin, hizkuntza ikasteko. Bi hilabete falta zitzaizkionean

**6.- Moción institucional para solicitar la concesión de asilo político a un ciudadano del Sahara Occidental.**

Hassanna Aalia nace en El Aaiún, Sahara Occidental, en 1988.

En 2010 participa activamente en el campamento de protesta pacífica de Gdeim Izik. Por este hecho es juzgado y sentenciado a cuatro meses de prisión sin ejecución.

En octubre de 2011, tiene la oportunidad de viajar al País Vasco con una beca de estudios para aprender el idioma. Cuando le faltaban

## OHIZKO OSOKO BILKURA

**2015.01.27**

Aaiunera itzultzeko, bere izena agertu zen Gdeim Izik-ko gertakariengatik epaitzekoak ziren pertsonen artean. Gauzak horrela, erabaki zuen, batetik, bere herrira ez itzultzea, hain zuzen ere, agintari okupatzaile marokoarrek atxilotu egingo zutelako; eta, bestetik, asilo politikoa eskatzea espainiar gobernuari.

dos meses para regresare a El Aaiún, su nombre aparece en la lista de personas que van a ser juzgadas por los hechos de Gdeim Izik, y él decide esperar para regresar a su país, dado que las autoridades acupantes marroquiés le encarcelarían, y solicitar asilo político al gobierno español.

2013ko otsailaren 17an, Rabat-eko auzitegi militarrak 25 zibil sahararren kontrako epaia eman zuen; horien artean zegoen Euskal Herrian bizi den Hassana Aalia. Honi betiko kartzela-zigorra ezarri zioten auzi-ihesean.

El 17 de febrero de 2013, el tribunal militar de Rabat emite sentencia contra 25 civiles saharauis, entre ellos Hassanna Aalia que permanece en el País Vasco y es sentenciado a cadena perpetua en rebeldía.

Geroztik, espainiar estatutik barrena dabil ezagutzera ematen kartzelatuta dituen lagunen egoera eta egunero erregimen marokoarra herri sahararrarekin egiten ari den injustizia.

Desde entonces recorre el territorio del estado español para dar a conocer la situación de desamparo de sus compañeros encarcelados y la injusticia a la que el régimen marroquí somete diariamente al pueblo saharaui.

2015eko urtarrilaren 19an Hassana-ri jakinarazi zioten bere asilo eskaerari ezezkoa eman ziotela eta 15 eguneko epea zeukala Espainiako lurrak uzteko.

El día 19 de enero de 2015 a Hassanna le notificaron que su petición de asilo queda rechazada y que tenía un plazo de 15 días para abandonar el territorio español.

Hau guztiagatik, Tolosako Udalak, Udalbatza osatzen duten partidu guztien aldeko bozkakin, Bildu, Aralar, EAJ/PNV eta PSEE-PSOE, aho batez,

Por todo ello, el Ayuntamiento de Tolosa, por unanimidad de los miembros que componen la Corporación municipal, Bildu, Aralar, EAJ/PNV y PSEE-PSOE,

### ERABAKI DU:

- Eskatzea agintaritza eskudunei eta Barne Ministroari gai honi heltzeko eta berriz aztertzeko Hassanna Aalia-ren asilo politikoaren eskaera; izan ere, bere herrialdera itzultzen bada, zigor gogorra ezarriko diote agintari okupatzaile marokoarrek, eta ezin izango du kartzelarik atera bere bizitza osoan, oso pertsona aktiboa delako politikoki eta inoiz ez diolako utzi borrokatzeari modu baketsuan bere herriaren autodeterminazio eskubidearen alde. Dagoeneko borroka horrengatik hainbat

### ACUERDA:

- Solicitar a la autoridad competente y al Ministro del Interior que tomen cartas en el asunto y se reconsidere la petición de asilo político de Hassanna Aalia, dado que si vuelve a su país será castigado duramente por las autoridades ocupantes marroquíes y no volverá a salir de prisión en lo que le queda de vida, porque es una persona activa políticamente y nunca ha dejado de luchar pacíficamente por el derecho de autodeterminación de su pueblo, lucha que ya

eta hainbat aldiz atxilotua izan da eta sarritan torturak pairatu ditu.

le ha costado detenciones y torturas en numerosas ocasiones.

- Tolosako herritarrei dei egitea Hassanna Aali gaztearen alde eta bere expulsioaren aurka burutuko diren mobilizazioetan parte hartzera.

- Invitar a la ciudadanía de Tolosa a que participe en las movilizaciones que se convoquen a favor del joven Hassanna Aali y en contra de su expulsión.

-Mozio hau Frente Polisarioak Euskadin duen ordezkaritzari, Espainiako Gobernuko Barne Ministerioari eta Euskadin Marokok duen kontsulatuari igortzea.

- Enviar esta moción a la Delegación del Frente Polisario en Euskadi, al Ministerio del Interior del Gobierno de España, y al Consulado de Marruecos en Euskadi.

Parte hartzeak:

... Iñaki Irazabalbeitia Fernanez, Aralar: *"Hassanna Aaliri elkartasuna adierazi egoera zail honetan. Gogoeta sakonagoa merezi du. 40 urte beteko dira Sahararen deskonolizazio prozesua hasi zenetik. Horrelako mozioak etortzen direnean amorrua eta etsipena sentitzen dut. Bere eskubideak aldarrikatzen ditugu, baina berdintsu jarraitzen dugu. Espero dugu borrokan jarraitzea beraien helburua eta estatu librea lortu arte. Bitartean, badakite elkartasun hori demostratu eta, esan, beraiekin gaudela eta egongo garela."*

... Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSEE-PSOE: "*Mozioarekin erabat ados eta gure botoa baiezkoa izango da. Comentar tal y como dice la moción: mostrar nuestra solidaridad con Hassana Aali y, como dice el primer punto, que el Ministerio del Interior revise la denegación de asilo político."*

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ/PNV: "Redundar un poco en lo que se ha dicho hasta ahora. Tenemos que proteger a Hassanna Aali. Está haciendo una labor pedagógica esplicando a todos la situación que viven en el Sahara y la actuación de Marruecos en todo este proceso. Es una labor buena que explica de una manera distinta a como lo explican los medios de comunicación y tenemos que apoyar y proteger porque está haciendo una labor importante."

... Alkatea: "*Babesa Hassanna Aaliri eta babesa bai Frente Polisarioari eta baita Sahara Mendebaldeko jendeari ere. Ezin dugu ahaztu lurralde okupatuetan sahararrek sufritzen duten errepresioa; azken finean beraien lurraldetik kanporatuak izan ziren Espainiak burutu ez zuen deskolonizazio baten ondorioz, eta hor Espainia Estatuaren ardura. Giza eskubideen urraketa sufritzen dute, okupazioa sufritzen dute, errepresioa, bortizkeria eta hemen ikusten da. Marruekosek erabiltzen duen estrategia lurralde okupatuetan bortizkeria da, izua sortzearena*

*da. Kanpotik babesa eskaini behar zaio. Egin genezakeen gutxiena adierazpen hau babestea eta onartzea izango da. Honekin batera bihar egingo den kontzentrazioarekin bat egiten dugu."*

**7,-Gipuzkoako Batzar Nagusiari Anoeta-Tolosa bidegorriaren proiektua onartzeko eskaera egitea.**

**7.-Solicitar la aprobación del proyecto de bidegorri Anoeta-Tolosa a Juntas Generales de Gipuzkoa.**

Idazkariak eskaera hau irakurri du:

"Oinezko zein bizikletaren erabilerak gora egin dute azken urteetan eta geroz eta gehiago dira ibilgailuaren ordez bestelako mugikortasun ohiturak garatzen ari diren herritarrak.

Ohitura berri hauek, norberarentzako osasungarriak izatetik haratago, ingurugiroarentzat ere onuragarriak dira, CO2 isurketak murrizten laguntzen baitute.

Honek denak, Tolosako udalak sinatua duen "Alkateen Ituna" deiturikoa betetzen laguntzen du. Itun honetan 2020rako CO2 isurketak %20 jaistea, energia kontsumoak %20 jaistea eta energia berriztagarrien produkzioa %20 igotzeko konpromisoa hartzen dute udalek.

Hala ere, hau dena sustatzen jarraitzeko ezinbesteok dira oinezko zein bizikleten erabilera indartzen jarraitzeko azpiegiturak bultzatzea, eta horretarako nahitaezkoa da bide gorrien sare zabal bat izatea lurralde mailan.

Bide gorriei dagokienean, Oria errekan herri desberdinak elkartzeko GFAk duen egitasmoak aurrera darrai. Horrela, Alegia Tolosa ibilbidearen ostean, Anoeta eta Tolosa elkartuko dituena egiteke dago. Ibilbide hau egun oinezko zein bizikletan dabiltzan askok erabiltzen dute eta horregatik udalak garrantzitsu ikusten du honen eraikuntza.

Hau gauzatzeko, GFAak Gipuzkoako 2015erako aurrekontuak onartu beharko lituzke, baina ez direnez onartuak izan luzapen mekanismoak martxan jarri dira.

Kasu honetan, "Anoeta-Tolosa bidegorriaren Proiektua" lanen lizitazio prozedura martxan duena, Gipuzkoako Batzar Nagusietara eraman behar da onarpena jaso dezan eta, ondorioz, lanak esleitzea ahalbidetzeko.

Hau guztiagatik, Tolosako udalak

1.- Gipuzkoako Batzar Nagusiei proiektu hau onartzea eta 2015 urtean gauzatzea egingarri egin dezatela eskatu nahi die.

2.- Mozio hau Gipuzkoako BBNNetako talde politikoei zein Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako departamendura bidaltzea."

<u>**OHIZKO OSOKO BILKURA**</u>

**2015.01.27**

Eskaera bozketara jarrita onartua izan da aho batez.

Parte hartzeak:

... <u>Iñaki Irazabalbeitia Fernandez</u>, Aralar: "*Mozioa babestuko dugu. Izan ere iruditzen zaigu Anoeta-Tolosako puska horretan jende asko ibiltzen dela, bai oinez, bai bizikletaz, eta bultzatuko du kirol gehiago egitea. Espero dezagun Batzar Nagusiek ia martxan dagoen obra hori benetan martxan jartzeko beharrezko baliabide ekonomikoak esleitzea.*"

... <u>Alkatea</u>: "*Hau sartzearen arrazoia da obra esleipen fasean dagoelako. Momentu honetan proiektua eginda dago eta epe motzean martxan jartzeko aukera dago. Ikusten dugu herritarrentzako interes haundia duela, ez bakarrik bidegorri bat egitea ahalbideratzen duelako, baizik argiteria jartzea ere ahalbideratuko duelako. Espazio ilun bat eta insegurua den gune bat da. Momentu honetan, 2015eko aurrekontuak Foru Aldundian prorrogatuak daude eta hau onartua izan dadin Norma Foral bat onartu behar da proiektu hau aurrera ateratzeko. Iruditzen zaigu interes bereziko proiektua izan daitekeela tolosarrentzat eta, ondorioz, hemen gaudenak herriarren defentsan ateratzea nahi genuke. Eskatu nahi dut hemendik, alderdi politiko bakoitzak dituen kideek Batzar Nagusietan proiektu hau gauzatzeko beharrezkoa den Norma Forala onar dezatela eta ez blokeatu.*"

**8.- <u>Galde-erreguak</u>.**

**8.- <u>Ruegos y preguntas</u>.**

Publikotik parte hartzea izan da. Hau DVD-an jasoko da.

Besterik gabe, gaueko zortzi t'erdietan bilera bukatutzat eman da, eta guztia nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las ocho y media de la noche, se da por finalizada la Sesión, de todo lo cual yo, el Secretario, certifico.

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**